

## MURGIA JAUREGIA, gure historiaren lekuko

### Gidoi narratiboa

#### **MURGIAKO JAURERRIA ETA JAUREGIA**

##### **1.- Jaurerriaren jatorria**

Murgiako jaurerriaren jatorria XIII. mendean erdialdean dago; garai hartan, lurraren jabetzak balio handia hartu zuen, eta noble leinuak lurra bereganatzen joan ziren. Gipuzkoako Ahaide Nagusien 24 familietako bat izan zen Murgia.

Talde feudal boteretsu hori bi talde handitan banatuta zegoen: oinaztarrak eta ganboarrak. Murgia familia oinaztarren bandokoa izan zen. XVIII. mendean, Murgiako M. Teresa Valdespinako Markesarekin ezkondu zen, eta horrekin batera Jaurerri hau Markesaren ondarean sartu zen.

##### **2.- Propietateak eta domeinuak**

Urumeako bailarako Murgiako jaurerriak lurralde zabala barne hartzen zuen. Etxearen eta dorrearen ondoko lurrak, Murgiako erema eta Ergobia auzoa. Azken hori leku estrategikoa zen komunikazioetan eta Urumean ibiltzeko pasabide edo bidesaria zuten.

#### **EL SEÑORÍO DE MURGUÍA Y SU PALACIO**

##### **1.- Origen del Señorío**

El origen del Señorío de Murguía se remonta a mediados del siglo XIII, época en la que la propiedad de la tierra adquirió un gran valor y los linajes de la nobleza se fueron apropiando de ella. Murguía fue una de las 24 familias de Parientes Mayores de Gipuzkoa.

Este poderoso grupo feudal estaba dividido en dos grandes bandos: el de Oñaz, y el de Gamboa. La familia Murguía perteneció al bando de los oñacinos. En el siglo XVIII, M<sup>a</sup> Teresa de Murguía, se casó con el Marqués de Valdespina, y con ello, este Señorío se incorporó al patrimonio del Marqués.

##### **2.- Propiedades y dominios**

Los dominios del Señorío de Murguía en el valle del Urumea abarcaban a un extenso territorio. Los terrenos colindantes a la casa-torre, la población de Murguía y el barrio de Ergobia, lugar este último estratégico en las comunicaciones y en donde tenían establecido un vado o peaje para poder transitar por el Urumea.

Bestela esanda, haraneko lur eta etxe gehienak familia horrenak ziren. Etxe horiek urteko errenta ordaindu behar zioten, eta Eguberrietan kapoi pare bat, barazkiak eta arrautzak eman behar zizkieten zerga gisa.

Astigarragako herritarrak, Santiagomendi aldera mugatzen zirenak, Murgiako Jaurreriaren jurisdikziotik kanpo egon ziren; beraz, Santiagomendiko jendea Murgiako ahalguztidunetatik babesten saiatu zen, eta horretarako, Aiztondoko Alkatetza Nagusiarekin egin zuten bat.

### 3.- Herriaren bilakaera

1576an, Murgiako Felipe bere maiorazkoa Aiztondon sartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. XVII. mendean, 1660ko urtarrilaren 26an, Astigarraga Aiztondoko Alkatetza Nagusitik banandu zen, Asteasurekin zituen etengabeko desadostasunengatik. Eta bere udala izango zuen herri independentea izan ahal izateko, kobrezko 2.000 dukat eman behar izan zizkion Ogasuneko Errege Kontseiluari.

Diru kopuru handi hori biltzeko, 30 baserri eta 9 etxe hipotekatu ziren maileguaren berme gisa, beren jabetza eta aprobetxamendu guztiekin.

En otras palabras, la mayor parte de las tierras y casas del valle pertenecían a esta Familia. Estas casas, tenían la obligación de pagarle una renta anual, además de darle por Navidad un par de capones, verduras y huevos como tributo.

Los vecinos de la aldea de Astigarraga, que se reducía a la zona de Santiagomendi, se mantuvieron fuera de la jurisdicción del Señorío de Murguía, por lo que las gentes de Santiagomendi trataron de protegerse de los todopoderosos de Murguía, incorporándose a la Alcaldía Mayor de Aiztondo.

### 3.- La evolución del pueblo

En 1576 Felipe de Murguía intentó integrar su mayorazgo en Aiztondo, sin conseguirlo. Durante el siglo XVII, el 26 de enero de 1660, sin embargo, Astigarraga se desanexionó de la Alcaldía Mayor de Aiztondo, por sus diferencias constantes que tenía con Asteasu. Y para lograr la concesión de villa independiente con Ayuntamiento propio, tuvo que realizar la entrega de un "donativo" de 2.000 ducados de vellón al Real Consejo de Hacienda.

Con el fin de recaudar esta importante suma de dinero, se hipotecaron, como garantía del préstamo, 30 caseríos y 9 casas con todas sus propiedades y aprovechamientos.

Astigarragako bizilagunak etxe historiko horretako Jaunak basailatze moduko baten mende urte luzez izan ondoren, XIX. Mendearen erdi aldera europar ideia liberalen oihartzun txikiak iritsi ziren Gipuzkoara. Hala, 1840an Murgiako herriak eta Ergobia auzoak Astigarragarekin zuten bat. Ordutik aurrera, udalerraren jurisdikzioa gaur egun ezagutzen duguna izan da.

Ignacio de Orbe y Vives de Cañamásen ere, Valdespinako seigarren markesak, hartu zuen parte 1943an Astigarraga Donostiarekin lotzeko prozesuan, izan ere, 87 astigartarrekin batera gutuna sinatu zuen beretze horren aurka zegoela adierazteko.

#### **4.- Eraikinaren ezaugarriak**

1457 arte, etxea harrizko dorretxea izan zen. Goiko aldea suntsitu ondoren, harria bezain sendoea ez zen material batekin konpondu zuten. Baina gutxi iraun zuen zutik 1512an frantziar tropek eraikina erre zutelako. XIX. mendean ere su hartu zuen, herrialdea suntsitu zuten liskarren ondorioz.

Gaur egungo jauregiaren eraikuntza 1578an hasi zen, Domingo de Idiacayz obra maisuarekin. Dorretxearen horma zaharrak berrerabiltzeko eta horren inguruan beste eraikin batzuk altxatzeko eskatu zioten.

Tras largos años de estar sometidos los vecinos de Astigarraga a una especie de vasallaje por el Señor de esa histórica casa, mediado el siglo XIX llegaron a Gipuzkoa tímidos ecos de las ideas liberales europeas. Así, en 1840 el poblado de Murguía y el barrio de Ergobía se integraron en Astigarraga. A partir de entonces la jurisdicción del municipio es la que hoy conocemos.

Ignacio de Orbe y Vives de Cañamás, sexto marqués de Valdespina, tomó también parte activa en el proceso de anexión de Astigarraga con Donostia en 1943, junto con 87 astigartarras firmó una carta manifestando su oposición a dicha anexión.

#### **4.- Características del edificio**

Hasta 1457 la vivienda fue una casa-torre de piedra. Tras la destrucción de su parte superior, fue reparada, con otro material menos robusto que la piedra. Pero poco duró en pie porque en 1512 el edificio fue incendiado por las tropas francesas. También fue incendiado en el siglo XIX a causa de las contiendas que asolaron el país.

La edificación del actual palacio comenzó en 1578 con el maestro de obras Domingo de Idiacayz. Le pidieron que reutilizara las antiguas paredes de la casa-torre y que levantara a su alrededor otros edificios anejos.

Jauregia oinplano angeluzuzenekoa da eta beheko solairua eta bi solairu ditu, lau isurialdeko estalkiekin. Gaur egungo ate nagusiaren gainean Murgiako armarría dago (arte bat, hiru otso ibiltari eta bi galdara beltz adarretatik kateen bidez zintzilik).

Jasokundeko Ama Birjinaren parrokia ere multzo arkitektonikoaren parte da eta jauregiari atxikita dago. Murgia familiak sortu zuen. Horregatik, haren eskubideak zituzten: barnean nagusitasun lekua hartzea, bikarioa eta onuradunak izendatzea, eta barruan panteoi bat izatea.

1999an, Jose María de Orbek (Murgiaren oinordekoa eta Valdespinako zazpigarren markesa) Donostiako Gotzainari saldu zion, pezeta bateko prezio sinbolikoaren truke.

Eraikin dotore honetako hormek istorio eta sekretu asko gordetzen dituzte. Besteak beste, bertan negoziatu zen gaur egungo udaletxea eraikitzeko lurren lagapena edo gotorleku gisa erabili zuten guda-taldeek XIX. mendeko gerretan.

## 5.- Murgia familia

Kontakizun honen bidez egiaztatu dugu Murgia familia izan dela gure historiaren protagonista: batzuetan, "Astigarragari aurre eginez ", eta, beste

El palacio es de planta rectangular y consta de planta baja y dos alturas, con cubiertas a cuatro aguas. Presenta sobre la actual puerta principal el escudo de armas de Murguía (con una encina con tres lobos andantes y dos calderas negras colgadas de las ramas y pendientes de cadenas).

La iglesia parroquial de Santa María de la Asunción también forma parte del conjunto arquitectónico y está anexa al palacio. Fue fundada por la familia Murguía. Por esta razón, tenían sus derechos de la misma: ocupar un lugar de preeminencia en su interior, nombrar el vicario y los beneficiarios, y tener un panteón en su interior.

En 1999, José María de Orbe (actual heredero de Murguía y séptimo marqués de Valdespina) la vendió al Obispo de Donostia por el precio simbólico de una peseta.

Las paredes de este señorial inmueble guardan muchas historias y secretos. En su interior se negoció la cesión de terrenos para la construcción de la actual casa concejil o fue utilizado como fuerte por las tropas en las guerras del siglo XIX.

## 5.- La familia Murguía

A través de este relato hemos comprobado que la familia Murguía ha sido protagonista de nuestra historia: unas veces "frente a Astigarraga" y otras

batzuetan, "Astigarragaren ondoan". Horregatik, leinu horretako kide garrantzitsuenek merezi dute hemen gogoratzea (Jaurerriaren familia eta markesak):

-Familia ("Historia bateko istorioak" liburuaren zerrenda)

"junto". Por eso, los miembros más destacados de este linaje merecen ser recordados aquí (familia del Señorío y marqueses):

- Familia (listado del libro "Historias de una historia")

	MARQUESES DE VALDESPINA	Periodo
1	Andrés Agustín de Orbe y Zarauz	1736-1754
2	José Joaquín de Orbe y Murguía	1754-1819
3	José María de Orbe y Elío	1819-1850
4	Juan Nepomuceno de Orbe y Mariaca	1850-1891
5	José María de Orbe y Gaytán de Ayala	1891-1933
6	Ignacio de Orbe y Vives de Cañamás	1933-1969
7	José María de Orbe Klingenberg	1969-

## 6.- Murgia jauregia gaur egun

Historialariek eta paisajistek balio handia eman izan diote jauregiaren eta inguruko lurren multzoari, artxibo historiko eta kultural zabala baitzegoen bertan, baita urruneko lurretatik ekarritako animalia eta landare espezieak ere. Bizilagunek inguru horretaz eta zoologiko txiki eta askotarikoaz gozaten zuten, sukaldeen patioaren ondoan, erlijio-ekitaldietara joaten ziren bitartean. Jauregiaren multzoan frontoi bat, urmael bat eta sagasti handi bat ere bazeuden.

Laurogeita hamarreko hamarkadan, hirigintzako jarduketak egin ziren

## 6.-El palacio Murguía, hoy en día

El conjunto del palacio y los terrenos anexos eran considerados de gran valor por historiadores y paisajistas, ya que existían un amplísimo archivo histórico-cultural, especies animales y vegetales que habían sido traídos de tierras lejanas. Los vecinos solían disfrutar de dicho entorno y del pequeño y diverso zoológico, anexo al patio de las cocinas, mientras asistían a los actos religiosos. En los espacios del palacio también existía un frontón, un estanque y un amplísimo manzanal.

En los años noventa, se realizaron actuaciones urbanísticas sobre algunas de

jauregiko lurzati batzuetan, eta horrek espazioen berregituraketa eragin zuen eta parkearen inguru naturala murriztea ekarri zuen.

Murgiako jauregiaren egungo oinordekoak eta Valdespinako zazpigarren markesak, Jose Maria de Orbe Klingenbergek, zinema-zuzendari ere badenak, AITA filma zuzendu zuen 2010ean. Film horren zatirik handiena Murgian filmatu zen.

Hurbileko film hau Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkeztu zen 2010ean, eta argazkirik onenaren zilarrezko maskorra lortu zuen.

Azken hamar urteetan, bai jauregia eta lorategiak, bai eliza hainbat ekitaldi publiko eta kulturaletarako erabili izan dira, esate baterako, kontzertu eta dantzaldiak antolatzeko, eta berrikiago, zeremonia eta oturuntzak antolatzen dira bertan.

### **Azken mezua:**

Herriak mendeetan zehar bizi izan dituen une zailengatik sentimendu gazi-goak izan baditzakegu ere, hartu dezagun aintzat udalerriri ematen dion balioa, alderdi historiko, kultural eta naturalean.

las parcelas del palacio, lo que afectó a una restructuración de espacios y conllevó una reducción del entorno natural del parque.

El actual heredero del palacio de Murguía y séptimo marqués de Valdespina, Jose Maria de Orbe Klingenberg, a su vez director de cine, dirigió en 2010 la película AITA. Este filme se rodó en su mayor parte en Murguía.

Esta cercana película, que contó con la participación de muchos vecinos/as, se presentó en la Sección Oficial del Festival de Cine de San Sebastián en 2010 y consiguió la Concha de plata a la mejor fotografía.

En los últimos diez años, tanto el palacio con sus jardines, como la iglesia, son utilizadas para diversos actos públicos y culturales, como la organización de conciertos y bailes y más recientemente, se organizan en él ceremonias y banquetes.

### **Mensaje final:**

Es por ello, que nos puede quedar un cierto sabor agrídulce por los momentos difíciles vividos por el pueblo a través de los siglos y, a su vez, se puede sentir en nuestros días un cierto reconocimiento por el valor que aporta al municipio a nivel de entorno histórico, cultural y natural.

Murgia gure iraganeko eta oraingo  
historiaren parte ere badelako.

Es evidente que Murguía forma parte de  
nuestra historia pasada y presente.

GOZA DEZAGUN!!!

DISFRUTÉMOSLO!!!

### **TESTUAK**

**ASTIGARRAGA Aldizkaria**  
(Kolaboratzaileei esker)

**Astigarragan, 2023ko martxoaren 27an**